

IZENORDAINAK

Izenaren ordeaz erabiltzen ditugun hitzak **izenordainak** dira: ni, zu, gu, zuek...

Izenordainak, izenak bezala, deklinatu egiten dira: zuri, niri, nik, gurekin, zuengana...

1. **PERTSONA-IZENORDAINAK.** Osatu esaldiak izenordain egokiekin.

- ☐ ez dakit nor den beste gelako arduraduna. Eta ba al dakizu?
- ☐ bihar beldurrezko film bat ikustera joango gara. Zer egiteko asmoa daukazue ?
- ☐ Mireiaren txakurra ezagutzera goaz. ere ezagutu nahi ahal duzu? Zatoz
- ☐ Martinek esan dit amaren eskuko telefonoa erori zaizula balkoitik, eta ez Aneri.
- ☐ ez zait batere gustatzen lagunekin lehian aritzea.

2. **PERTSONA-IZENORDAINAK.** Osatu taula.

NOR	ni	zu	bera	gu	zuek	beraiek
NORK	nik					
NORI		zuri				
NOREN			bere			
NOREKIN				gurekin		
NORENTZAT					zuentzat	
NORENGANA						beraiengana

Izenordaina

Izenordainak izenaren ordeaz agertzen dira. Mugagabeaz deklinatzen dira.

- **Pertsona-izenordainak** pertsona zehazten dute. Bi motatakoak dira: **arruntak** eta **indartuak**. Pertsona izenordain indartuak aditzaren aurrean eta ere hitzaren aurrean erabili ohi dira.

➤ **Nik** (arrunta) ez dut kristala hautsi; **zeuk** (indartua) hautsi duzu.

- **Izenordain zehaztugabeak** ez dute nori edo zeri buruz ari garen zehazten. Hauek dira: *inor/ezer, norbait/zerbait, edonor/edozer, edozein, baten bat, zer edo zer, nor edo nor...*

➤ **Norbaitek zerbait** egin beharko du, egoera konpontzeko.

- **Inor** eta **ezer** izenordainak galderetan eta ezezko esaldietan erabiltzen dira.

➤ Etorri al da **inor**? Ez, ez da **inor** etorri.

3. **PERTSONA-IZENORDAINAK.** Osatu esaldiak pertsona-izenordain egokiak erabiliz.

- ☐ auto zaharra daukagu., ordea, berria daukazue.
- ☐ autoz ekarri gaituzte.
- ☐ al zara Andoniren semea?
- ☐ pena ematen diguzue.
- ☐ eman dizkizute sagar guztiak eta batere gabe gelditu gara.

4. **PERTSONA-IZENORDAIN INDARTUAK.** Osatu esaldiak, beheko izenordain indartuak erabiliz.

Geuk	Zeuk	zeuk	Ni neu
------	------	------	--------

- ☐ poliki joango nintzateke bide horretatik.
- ☐ ikusiko duzu zer egin.
- ☐ ere nahiago dugu beste bide batetik joan.
- ☐ Hori erabaki behar duzue.

5. **IZENORDAIN ZEHASTUGABEAK.** Osatu esaldiak dagokion izenordainarekin.

- ☐ Oraindik ez da etorri etxera.
- ☐ dago ate-joka.
- ☐ nahi duzu edateko?
- ☐ Ez dut nahi edateko, eskerrik asko.
- ☐ Bada ni egarri naiz eta edango nuke.
- ☐ Zuhaitz horretara ezin da igo.

6. **IZENORDAIN ZEHASTUGABEEN ERABILERA.** Aukeratu izenordain egokiak.

- ☐ Aitak ez digu esan horri buruz.
☐ ezer ☐ ezer ez ☐ zerbait
- ☐ Zer erosi zenuten atzo azokan?
☐ Ezer ☐ Ezer ez ☐ Edozer
- ☐ Ariketa hau egin dezake. Oso erraza da.
☐ norbaitek ☐ inork ☐ edonork
- ☐ Nork jan ditu intxaur guztiak?
☐ Inork. ☐ Norbait. ☐ Inork ere ez.
- ☐ Gaur ez da etorri zinemara nirekin.
☐ norbait ☐ inor ☐ inor ez

7. **IZENORDAINAK.** Osatu testu hau, mota guztietako izenordainak erabiliz.

Kontuz araeekin!

Udaltzainak gara eta, arauak betetzen ez baditu, isuna jartzen diogu. ere oker eginez gero, isuna jasoko duzu etxean. Udaltzainok prest gaude beti zure alde egiteko, baina legea hausten baduzu, argi ibili! Badakizu, erabaki!

8. **BAI/EZ ERAKO GALDERAK.** Osatu beheko galderak izenordain hauekin.

ezer

inork

inorentzat

inori

ezeren

- ☐ Ba al daki non dagoen Shangai?
- ☐ Ba al dago kutxa horren barruan?
- ☐ Gustatzen al zaizkio hemengo igel-hankak?
- ☐ Ekarri al duzue oparirik?
- ☐ Emango al zenidake hori truke?

9. **BAI/EZ ERAKO GALDERAK.** Lotu galdera bakoitzak dagokion erantzunarekin gezi baten bidez.

- | | |
|--|--|
| Norbait iritsi da? ☐ | ☐ Ez, ez gaitu ezerk beldurtzen. |
| Zerbait nahi duzu jateko? ☐ | ☐ Bai, niri galdu zaizkit betaurrekoak. |
| Norbaitek ikusi al du nire borragoma? ☐ | ☐ Ez, eskerrik asko, ez dut ezer nahi jateko. |
| Norbaiti betaurrekoak galdu zaizkio? ☐ | ☐ Bai, aita iritsi da. |
| Zerbaitek beldurtzen zaituztet? ☐ | ☐ Ez, ez du inork zure borragoma ikusi. |